


GEXAN LANTZIRI



Gexan, gizon prestua,* gizon jatorra. Irribarre goxoa beti ezpainetan. Gaur ere bai. Eta hori ez da erraza. Lanik gabe baitago Gexan. Gure irakurleentzat ezaguna Gexan. Zenbat aldiz irakurri dituzten gure irakurleek Iparaldeko berriak eta albisteak, haren lumak ezagutera-ziak! Kasu berezi bat da Gexan: kazetaria da bizibidez. Hortik bizi zen. Euskal kazetarien artean ez dago lanbidez periodista den askorik.

ANAITASUNAren azken zenbakietan —oraingo hontan hasi da berriro— Gexanen idazlanik ez dugu jaso. Zer gertatzen da?

—Zer gertatzen da, Gexan?

—Lanik gabe nago. ANAITASUNAn idazten ez badut, kazetetan idatziz lehen nuen erritmoa galdu dudalako da. Lehen albistearen gain nengoen, eta idaztea ez zitzaidan kostatzen. Egun,* beste lan batzutan nabil.

—Utzi egin duzu kazetaritza?

—Lana galdua dut. Kanpo gelditu naiz, maiatzaren 15ean, hetsi* egin baitigute lan lekua. Kontzentrazioaren ondorioak jasaten* ari gara.

—Non lan egiten zenuen?

—L'Écho du Sud-Ouest» egunkarian nengoen, 1974.eko hazilaz* gerotzik. Hemen hiru sail eramaten nituen. Bi erdaraz eta bat euskaraz. Frantsesez, egunero Baionako berriak, eta astean behin «De la Bidasoa à l'Èbre» Hegoaldeko berriez. Euskarazko sail bat ere ba nuen larunbatero.

—Baina, oker ez banago, «Basque-Éclair» egunkarian lan gehiago egin duzu, ezta?

—Lau urte egon naiz hor. 1970.eko urtarrilean sartu nintzen. «Basque-Éclair» hau, Paueko «Éclair-Pyrénées» egunkariaren Euskal Herrirako edizio bat zen. Hemen ere hiru sail nituen. Baionako aktualitatea egunero, astero «Le Pays-Basque à vol d'oiseau» Hegoaldeko informazioarekin; eta euskaraz astean hiru aldiz idazten nuen. Zoritxarrez, egunkari honek Euskal Herrirako edizioa kendu egin zuen. Pauera joatea proposatu zidaten orduan, han lan egiteko. Nahiago izan dut, lana galdurik ere, Euskal Herrian gelditu.

—Lanik berriz lortzeko esperantzarik?

—Oraingoz ez. Ba liteke laster zerbait egitea. Eskatzen badidate... Izatekotan ere, egunkari tipiren batetan izanen litzateke, zeren* eta «Sud-Ouest»en ez baitago lekurik. Egunkari honek 22 edizio egiten ditu, 10 departamendutan, 1.400.000z goiti* abonatu dituelarik. Euskal Herrirako ere ba du edizio bat.

—Nola ulertu duzu zuk zeure kazetaritza?

—Begira! Nik parte hartu dudana egunkari horik* eskuindarrak dira. Ez dira euskaltzaleak. Hor sartuz, zerbait baino gehiago egiten nuelakoan nago. Informazioa, geurea, gero eta errazago pasatzen zen. Hastean nekez, gero errazago. Gure berriak pasatzeko, eta Euskal Herria beronen osotasunean tratatzeko, beste biderik ez dago. Geure mundua eta geure arazoak, geure ikuspegitik eman behar ditugu ezagutzera. Ez ala?*

—Eta zertan zara orain?

—Esan dizut: lanik gabe. Bazterlan batzutan ari naiz. ZABALekoak eta laguntzen. Ikastolarekin eta.

—ANAITASUNAn idazten segitzekotan zara?

—Bai, noski. Gogoko zait.

Joan ALTZIBAR